

**Olentzero joan zaigu**

mendirira lanera  
intentzioarekin  
ikatzak egitera.  
Horra, horra  
gure Olentzero  
pipa hortzetan duela  
eserita dago,  
kapoiak ere baitu arraultzatxuekin  
bihar meriendatzeko  
zato ardoakin (bis)

**Olentzero buru handia**

entendimentuz jantzia,  
bart arratsean edan omen du hamar  
arruko zahagia.  
Ai urde tripa handia tralaralara (bis)  
ai urde tripa handia  
sagar ustelez betea.

**Olentzero begi gorri**

non harrapatu duk arrain hori?  
Zurriolako arkaitzetan  
bart arratseko hamaiketari (bis)

Olentzero begi gorri  
non harrapatu duk sagar hori?  
Altzuetako sagastian  
txakurra lotan zegoenean (bis)

Olentzero ikazkina  
garbitu ezak mutur zikina  
bai, bai, bai, bai arratsean  
ongi afaltzen dudanean (bis)

**Hator, hator mutil etxera,**

gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaua ospatzeko  
aitaren eta amaren ondoan.  
Ikusiko dek aita barrezka  
amaren poza atseginez.  
Eragiok mutil,  
aurreko danbolinari,  
gaztainak erre artean,  
gaztainak erre artean,  
txipli, txapla, pun.  
Gabon gaua pozik igaro dezagun.

**Mendi aldetik datoz,**

artzaiak, artzaiak,  
bildots bana harturik  
bizkar gainean.

Gabon gauean kanta,  
kanta aleluia, kanta aleluia,  
Gabon gauean kanta,  
kanta aleluia gauean.

Aitzurra sorbaldean,  
Anttonek, Anttonek,  
afaltzeko asmotan  
pozik zentorren.

**Alaken, alaken,**

alapikulatunbailen  
errespundela pikulatunba  
Olentzero etorri zen.  
Adiskideok! Ikusi al dezute  
zelai horietan artzaia?  
Artzai txiki, artzai handi,  
artzai mutur leuna.

**Din dan don,**

din dan don,  
Eguberri on,  
zorion, zorion,  
Gabonak din dan don.  
Din dan don,  
din dan don,  
Eguberri on,  
zorion zorion  
Gabonak gabon.  
Elkarrekin goaz,  
Gabonak ospatzen,  
kanta-kantari denok,  
kale guztiak alaitzen;  
elurra mendian  
bufanda lepoan  
pozaren pozez goaz  
oporrak gogoan.  
Din dan don...

**Kaxkazuri, sudur gorri,**  
mendi maldan txuri-txuri,  
zorionak, zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.

Gabonak, Gabonak, hau zoriona,  
bertsotan hasi zaigula aitona,  
Ajaja barrezka ari da amona.

Tximini zuloitik, norbait sartu da,  
mutur beltz, begi gorri, aiba lio!  
Olentzero dela, halaxe dio.

**Kea pipatik eta,**  
txondorretik berdin,  
Olentzero basoan  
bizi da ikazkin.  
Zer opari nahi duzun,  
ondo adierazi.  
Olentzerok ikatzik  
ez diezazun utzi.

Iribarrez ari da,  
karta irakurtzen,  
zer eskatu huraxe  
otarrara zuzen.  
Bihotza handi eta  
lodikote bera,  
ozta-ozta sartu da,  
tximinian behera.

Opariak jartzean,  
haurrak lotan zeuden,  
ez dakite noiz sartu  
eta atera den.  
Eskerrik asko eta  
gora Olentzero,  
guk gogoan izango  
zaitugu urtero.

**Gabon, Gabon, Gabon**  
daukanak ez daukanari eman.  
Gabon, Gabon, Gabon,  
Eguberri on.  
1, 2, 3 IEUP!